



Euskara GURE LANTEGIETAN

Mikel Ugalde

“Lan mundua berarizko hizkuntz normalizazio prozesutik ia kanpo geratu da orain arte. Egin izan diren ahaleginak baliozkoak izan arren, gorpuzte eta ikuspegi orokor bateraturik gabeak izan direla esan daiteke”

(Euskararen Aholku Batzordeak)

Erreterria lehenago nolakoa zen, gure herrietako lantegi zaharren ormak, tximiniak eta kokalekuak nolakoak ziren ezagutzeko zoria eskaintzen du OARSO ale honetako hainbat argazkik. Gure herriaren iragana biltzen da, nolabait, bertan, gure historiaren aitortza egiten duten irudiak dira. Joan ziren, desagertarazi genituen, gizarte aldaketak, eta zenbaitetan nagusitu izan diren interesak, iraganaren oroipenera aldarazi ditu gure herriari taju sendo eta indartsua eman zieten lantegiak. Iraganaz ari gara, iragan ahaztezinaz. Geroa eraikitze gozuan hartu beharreko iraganaz.

Eta orma zahar horien barrunbean, tramankulu zaharkitu haien ondoan, makinaren etengabeko burrundak, euskara zen, neurri handi batean, bertako harremanetarako hizkuntza. Lantegiekin batera, euskararen bizi-ataletako bat joan zitzaigula esan dezakegu. Euskara eta guzti zen indartsua gure herria, eta, gerora ere, euskara eta guzti egin beharko du aurrera Erreterriak bere izaera euskaldunari eutsi nahi dion neurrian.

Lan munduaren garrantzia

Euskararen Aholku Batzordearen ustetan garrantzi haundiko arazoaren aurrean gaude gaur egun. Euskararen etorkizuna lan munduan erabakiko da. Euskarak lanean tokirik baldin badu, lanerako baliagarria baldin bada eta, batez era, lanean erabilgarria baldin bada, euskarak gerora ere bere kokalekua izango du Europa berri honetan.

Izan ere lanerako izan dezakeen balioak bultzatzen ditu hainbat gazte euskara ikastera, lanpostu bat eskuratzeko baliagarri izango zaion ustetan saiatzen dira bidezkoak diren agiriak eskuratzen. Eta jakina, euskarak inongo baliagarritasunik ez duela ikusten baldin badute estudiatzeari utzi egingo zaio, eskolak ez du hainbeste euskaldunduko eta azken urteotan egindako aurrerakadak geldialdi serio bat ezagutu dezake.

Guzti horregatik, lehenengo lantegi zahar horiek argazkietan ikustekak itzulerarik gabeko historia oroitarazten dit. Garai batean lantegietan euskaraz egiten zela pentsatzeak eta, orain, euskararen etorkizuna ziurtatzeko lan mundua ezinbesteko duela jakiteak, halako larrimina sortzen dit. Garai batean irabazitzat geneukan apustuaren aurrean aurkitzen gara. Lana bera sortzeak ematen du dudarik gabe buruhausterik asko. Lana sortzea da garrantzizkoena, baina euskaraz baldin bada hobe.

Bada hemen euskararen gizarte-historia egiteko gai polita. Inongo

kondairarik egiteko asmorik gabe, langintzaren hiru une aipatu nahi nituzke adibide gisa aurrerantzean egin beharreko ibilera hobeto eza-gutzeko: Fabrika Haundia, Papelera eta hirugarrenik, zerorrek erabaki.

Euskarazko harremanak

Duela mende t'erdiko kontuak dira. Pentsa ezazu Fabrika Haundia nolakoa zen. Bertan oihalak eta abar ehuntzen dihardute langileak. Horietatik bi aski ezagunak, gerora ere herriak gogoan hartu dituenak. Xenpelar eta Musarro bertsolariak euskaraz ezezik, lan munduan ere bertsotan bizi zirenak. Antonio Zavalak berak emango dizu lantegi barruko giroaren berri.

“Musarro eta Xenpelar fabrika aundiko langileak omen ziran, euleak; Musarro langille utsa, ta Xenpelar, enkargatua. Biak oso lagunak omen ziran. Fabrika aundian, erretzea debekaturik zegoan. Musarro, ordea, erretzale purrukatua izaki. Ainbeste ordu erre gabe ezin egonik, komunera joan ta antxen erretzen zuan. Xenpelarrek, ordea, zer zebillen igerri zion, ta, enkargatua baitzan, zerbait esan beharrean aurkitu zan. Ala egun batez, Musarro oi bezela komunean pipa erretzen ari zala, joan ta bertsoa bota zion. Bai Musarrok erantzun ere”⁽¹⁾

Pentsa gero nolako harreman giroan kokatzen diren Xenpelarrek eta Musarrok elkarri botatako bertsoak:

Xenpelarrek:

Aizak i, mutill mañontzi,
nagusiari goraintzi,
ez al akiken or pipa artzia
etzela lizentzi?

Jeniyo txar oiek utzi,
bestela ezurrak autsi,
gisa-legia nola bear dan
ezin erakutsi.

Musarrok:

Nik badet giza-legia
Prantxiskuk baño obia,
beste tatxarik etzait arkitzen:
arrote pobria;
nik jeniya noblia,
kortesi paregabia,
neri ezurrak austeko nun dek
abillidadia?





Hamaika gogoeta sorterazi ditzaketen bertsoak dira. Imaginatzen al duzu gaur egun enkargatuaren eta langilearen arteko gisa honetako elkarriketarik? Xenpelarrek ez du arautegirik aipatzen. Giza-legia erakutsi beharak kezkatzen du. Horretarako, jakina, ez da hotz eta motz gelditzen “jenio txar oiek utzi bestela ezurrak autsi” oharra luzatzen dihonean. Musarro ere, ikusten denez, ez da kikiltzen. Enkargatuaren erronkari sendo eusten dio “neri ezurrak austeko nun dek abillidadia?” galdatzen dihonean.

Hemen, euskararen erabileraren ikuspuntutik begiratuta, horixe nabarmentzen da, lantegiko harremanetarako hizkuntza euskera dela. Gure hizkuntza ez dela baseritarren eta arrantzaleen kontua bakarrik, industrian ere, lurralde euskaldunenetan bederen, lantegiak sortu ahal, euskara ere sartuz joan zela. Harremanak, bestalde, ahozkoak ziren. Garai hartan ez dut uste paperak zirriborrotzen lan askorik hartzen zutenik. Gehienez ere ofizinako “escribientea”ren kontua izan-go.

Papeleran

Errenteriako lantegiaz ari gara, hemen esandakoak manta fabrikari ere gertatzen zirelarik. Nik ezagutu izan nituen lantegiak eta lan giroak dira mintzagai. 1960. urte inguruko kontuak.

Erdaldun asko zebilen ordurako papeleran, haina baita euskalduna ere. Errenteriako, Lezoko, Oiartzungo eta ingurutako jende dezentetorri ohe zen lanera. Gehientsuenak txirinduan, modua zuenak moto koskorren batean. Autoz goi kargudunen bat edo beste. Oinez ere, berriz, ez gutxi. Makina zaharretan, pastan eta tailerretan zebil-

tzaneren artean askotxo ziren euskaldunak. Bizkaitarrak ere baziren Zallako eskolatik etorriak; hauek gehientsuenak erdaldunak. Kuriosoa zen. Eskolatuenak, edota fabrian goi karguren bat zutenak erdaldunak ziren. Enkargatueta ere lehenengo zaharrak euskaldunak, berriak, aldiz, eskolatik etorriak, denetarikoa.

Langileen artean euskaraz asko egiten zenaren oroitzapena dut, besteak beste, gazteleraz oso gutxi egiten zuen jendea bazegoelako. Lanerako hizkuntza, beraz euskaldunen artekoa, ahozkoa, euskara zen. Harraman ofiziala, nolabait esanda, orde, erdara. Idatziz egini-ko guztia: oharrak, baleak, agiriak, eskaerak, nominak, gutunak, guztia, dokumentazio guztia erdaraz. Oharrak eta aginduak, idatziz emanikakoak batipat, zorrotzak bezain zehatzak ziren. Erretzearen debekua gogarazteko oharra, esaterakoa, honelatsukoa izan zitekeen:

“ Ante el reiterado incumplimiento de la norma que prohíbe fumar en las dependencias de la Empresa, esta Dirección recuerda la obligatoriedad de cumplir dicha norma, por lo que en caso de reincidencia procederá a la aplicación de las sanciones que contempla la normativa vigente”.

Ohar honek ez du Xenpelarrenaren inongo antzik, ez edukian ez erabilitako hizkeran. Papeleran euskaraz asko egiten zen. baina erdaraz funtzionatzera behartutako lantegia zen. Langile kualifikatu asko erdalduna zen, garaia ere, berriz, halakoa. Karga-deskargan zebiltzen koadriletan gero eta kanpotar gehiago ikusten zen. Balizko olan bezala, ez zegoen hizkuntzaren burdin-lanetarako biderik hemen. Pentsatzekoa da gainontzeko lantegietan ere antzeko zerbaite gertatuko zela.

Egungo apustua

Badira ia euskara hutsean lanegitea eskatzen duten eginkizunak. Itzulpengintza, irakaskuntza eta kazetaritza alorrean dira eguneko lan ordurik gehienak euskaraz betetzen dituztenak. Horretaz gain, orde, benetako apustua da lan munduko euskararen etorkizunarena, euskara beraren geroa. Beste herrialde batzutan arreta haundiz zaindu izan duten kontua da hau, Quebec-en kasu. Hemen eginkizun eta ikuskitzuna da oraingoz. Halaz ere pausoak ematen hasiak dira dagoeneko.

Izan ere, euskaraz ikasten iharduteak merezi al du gero erdaraz lan egitekotan? Nola kokatzen da euskararen erabilera gero eta europartiarra izango den gizarteetan? Amets ugari egin daiteke guzti honetaz. Amets ezezik, lanik ere bai benetan esnatzeko gai bagara.

Lantegiko harremanak katearen antzekoak dira. Katebegiren bat apurtzen baldin bada katea eten egiten da. Lantegian euskara ez dakiarik baldin bada erdara nagusituko da. Hori horrela izanik ere, pausoak eman daitezke, zerbitzuen alorrean batipat.

Gauza jakina da herri administrazioekiko harremanetan euskaraz egiteko eskubide osoa dagoela, gure hizkuntza erdara bezain ofiziala dela, horrek administrazioetako egiturak, neurri mugatuen bederen, euskalduntzera behartu egiten dituela. Hemen ez dago aitzakirik. Herritarrok euskaraz egiten dugun neurrian gero eta euskara gehiago egingo da udaletan.

Maila pribatuan ere gauzak alda daitezke. Azkenean zerbitzuak eskaintzen duenak bezeroaren gogo-nahiak ase behar ditu, kalitatea eskaini, tratua ona eman. Bidezkota da, testuinguru honetan, euskaldunari zerbitzuak euskaraz jasotzeko egokiera eskaintzea. Jatetxeetan, tabernetan, dendetan, auto-tailerretan, kirol eta osasun zerbitzuetan, liburutegietan, elizan... Ez dago inongo eragozpenik gaiari heldu eta gero eta gehiago euskaraz egiteko. Euskaraz eskaini beharreko zerbitzuak zenbaitetan barne-giroa ere aldaraziko du.

Lehenengo lantegiak joan ziren, lehenengo bizimodu, ohiturak eta harremanak joan ziren bezalaxe. Lantegiak aldatu dira eta hizkuntzak zer esanik ez. Hemendik aurrera, gaztelera ezezik, ingelesa ere ezinbestekoa izango da hainbat postutan lan egin ahal izateko. Ea aurretik gure euskarari lan mundaaren txoko batean lekuren bat egiten diogun bizi iraupenik izan dezan.